

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

136/2024 Foru Agindua, apirilaren 3koa, «Mugaz gaindiko ordainketei buruzko aitorten informatiboa» izena duen 379 eredu onetsi eta hura aurkezteko era eta prozedura ezartzen dituena.

Merkataritza elektronikoa izan duen hazkundeak erraztu egiten du estatu kideetako azken kontsumitzaileei ondasun eta zerbitzuen mugaz gaindiko salmentak egitea. Testuinguru horretan, mugaz gaindiko merkataritza elektronikoa gauzatzen denean, nahiz eta balio erantsiaren gaineko zerga estatu kide batean izan zor, hornitzailea beste estatu kide batean egon daiteke kokatuta, hirugarren lurralde batean edo hirugarren herrialde batean.

Hala ere, enpresa iruzurgileek merkataritza elektronikoa eskaintzen dituen aukerak baliatzen dituzte desleialak diren merkataritza abantailak lortzeko, eta bete gabe uzten dituzte balio erantsiaren gaineko zergarekiko betebeharrak. Zergapetze printzipioa helmugan aplikatu behar den kasuetan –kontsumitzaileak kontabilitate betebeharren mende ez egoteagatik–, kontsumoko estatu kideek tresna egokiak eduki behar dituzte enpresa iruzurgile horiek detektatu eta kontrolatzeko. Argi geratzen da garrantzi handikoa dela mugaz gaindiko merkataritza elektronikoa esparruan enpresa batzuen iruzurrezko jokabidearengatik balio erantsiaren gaineko zergan gertatzen den iruzurrari aurre egitea.

Uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen bidez –eskura daukan arau mailarik handieneko xedapena erabilita– Gipuzkoako Lurralde Historikoak balio erantsiaren gaineko zergaren erregulazio eguneratu eta osatu bat onetsi zuen.

Erregulazio hori bat dator haren onespeneraren unean lurralde erkidean indarrean zegoen araudiarekin, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 26. artikulua berariaz ezartzen duen moduan.

Hala, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 166 quater artikulua, Foru Dekretu Arauemaile hori aldatzen duen azaroaren 28ko 14/2023 Foru Dekretu Arauemaileak gehitu zuenak hain zuzen, esaten du ezen jatorri edo harrerako estatu kidea Espainiako Erresuma duten ordainketa zerbitzuen hornitzaileak behartuta daudela egiten dituzten mugaz gaindiko ordainketen erregistroak eramatera, behar besteko xehetasunarekin, bai eta erregistro horiek Zerga Administrazioaren esku jartzera ere.

Erregistro horiek Zerga Administrazioaren esku jartzeari dagokionez, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 81 bis artikulua, abenduaren 27ko 1171/2023 Errege Dekretuaren bidez sartu zenak, xedatzen du jatorri edo harrerako estatu kidea Espainiako Erresuma duten ordainketa zerbitzuen hornitzaileek aitorten bat aurkeztu behar dutela gorago aipatutako 166 quater artikulua araberan eraman behar dituzten erregistroei dagokienez (1171/2023 Errege Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Zerga Berezien Erregelamendua, uztaila-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 136/2024, de 3 de abril, por la que se aprueba el modelo 379 «Declaración informativa sobre pagos transfronterizos» y se determinan la forma y procedimiento para su presentación.

El crecimiento del comercio electrónico facilita la venta transfronteriza de bienes y servicios a los consumidores finales en los Estados miembros. En ese contexto, el comercio electrónico transfronterizo se refiere a un suministro en el cual, aunque el impuesto sobre el valor añadido se adeuda en un Estado miembro, el proveedor está establecido en otro Estado miembro, en un tercer territorio o en un tercer país.

No obstante, las empresas fraudulentas aprovechan las oportunidades que brinda el comercio electrónico para obtener ventajas comerciales desleales mediante la elusión de sus obligaciones en materia del impuesto sobre el valor añadido. Cuando es de aplicación el principio de imposición en destino, debido a que los consumidores no están sujetos a obligaciones contables, los Estados miembros de consumo necesitan disponer de instrumentos adecuados para detectar y controlar a esas empresas fraudulentas. Es importante luchar contra el fraude transfronterizo del impuesto sobre el valor añadido provocado por la conducta fraudulenta de algunas empresas en el ámbito del comercio electrónico transfronterizo.

Mediante Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, se aprobó en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en cuanto a sus normas de mayor rango normativo, una regulación actualizada y completa del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Dicha regulación se corresponde con la normativa vigente en territorio común a la fecha de su aprobación, tal y como expresamente establece en su artículo 26 el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo.

Así, el artículo 166 quater del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido, introducido por el Decreto Foral Normativo 14/2023, de 28 de noviembre, de modificación del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido, obliga a los proveedores de servicios de pago cuyo Estado miembro de origen o acogida sea el reino de España, a mantener registros suficientemente detallados de los pagos transfronterizos realizados y a su remisión a la Administración tributaria.

En relación a la remisión a la Administración tributaria de los citados registros, el artículo 81 bis del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido (aprobado por el Real Decreto 1624/1992, de 29 de diciembre), introducido por el Real Decreto 1171/2023, de 27 de diciembre, por el que se modifican el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido el Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, y el Reglamento de procedimientos amistosos en materia de imposición directa, aprobado por el Real Decreto 1794/2008, de 3 de noviembre, obliga a los proveedores de servicios de pago cuyo Estado miembro de origen

ren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta Zuzeneko zergen arloan aplikatzekoak diren adiskidetasunezko prozeduren Erregelamendua, azaroaren 3ko 1794/2008 Errege Dekretuaren bidez onetsia).

Bestalde, erregistro horien edukia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 62 ter artikuluan arautzen da.

Foru agindu honen xedea da mugaz gaindiko ordainketei buruzko aitorten informatiboa aurkezteko erabiliko den 379 eredua onestea, bertan zehaztuta utzita zein dauden aurkeztera behartuta, zer informazio jaso behar den eta hura nola eta zein epetan aurkeztu beharko den.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. «Mugaz gaindiko ordainketei buruzko aitorten informatiboa» izena duen 379 eredua onestea.

Onetsita geratzen da «Mugaz gaindiko ordainketei buruzko aitorten informatiboa» izena duen 379 eredua, fitxategi informatiboen bidez bidaltzekoa dena foru agindu honetan aurreikusitako prozedura, formatu eta diseinuari jarraituz. Haren edukia foru agindu honen eranskinean jasotzen da.

2. artikulua. 379 eredua aurkeztera behartuak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 166 quater artikuluan aipatzen diren ordainketa zerbitzuen hornitzaileek aurkeztu behar dute 379 eredua, betiere baldin eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 46.Bi artikuluko a) letran xedatutakoaren arabera, eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari badagokio.

Foru agindu honen ondorioetarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 166 ter artikuluko a) letran definitutakoak dira ordainketa zerbitzuen hornitzaileak.

3. artikulua. 379 ereduan jaso beharreko informazioa.

379 ereduan aitortu beharko dira ordainketa zerbitzuen hornitzaileek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 166 quater artikuluan eta abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 62 ter artikuluan xedatutakoaren arabera eraman behar dituzten erregistroak.

4. artikulua. 379 eredua aurkezteko epea.

379 eredua hiru hilean behin aurkeztuko da, hiruhileko natural bakoitzean egindako mugaz gaindiko ordainketengatik, kasuan kasuko hiruhileko naturala amaitu ondorengo hilabetea bukatu baino lehen.

5. artikulua. 379 eredua elektronikoki aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura.

1. Foru agindu honen 2. artikuluan aipatzen diren zergapekoek ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduaren 2. eta 3. artikuluetan ezarrita dauden baldintzen eta prozeduraren arabera aurkeztu behar dute 379 eredua (320/2017 Foru Agindua, ekainaren 28koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoko erabilteko obligazioa arautzen duena). Horretarako, bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza elektronikoa eta bai haren webgunean eskuragarri jarriko dira, gainerako formulario edo eredu normalizatuekin eta bestelako laguntza programa eta zerbitzuekin batera, 379 eredua elektronikoki bidaltzeko zerbitzua eta hari dagokion informazioa.

Alde horretatik, ordainketa zerbitzuei buruz informatzeko garaian, zerbitzu horien operadoreek mezu informatiko batean bidali beharko dute aitortpena, foru agindu honetako eranskinean ageri den edukiri jarraituta.

o acogida sea el Reino de España, a presentar una declaración relativa a los registros que están obligados a mantener conforme a lo previsto en el artículo 166 quater antes mencionado.

Por su parte, el contenido de los mencionados registros se regula en el artículo 62 ter del citado Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

La presente orden foral tiene por objeto aprobar el modelo 379 de declaración informativa sobre pagos transfronterizos, determinando los sujetos obligados, el objeto, la forma y plazo para la presentación de la declaración informativa en cuestión.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 379, «Declaración informativa sobre pagos transfronterizos».

Se aprueba el modelo 379, «Declaración informativa sobre pagos transfronterizos», que deberá remitirse mediante el envío de ficheros informáticos, de acuerdo con el procedimiento, formato y diseño previstos en esta orden foral, y con el contenido que figura en el anexo de la misma.

Artículo 2. Obligados a la presentación del modelo 379.

Están obligados a presentar el modelo 379 los proveedores de servicios de pagos a que se refiere el artículo 166 quater del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido, cuando de conformidad con lo dispuesto en la letra a) del artículo 46.Dos del Concuerdo Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, sea competente la Diputación Foral de Gipuzkoa.

A efectos de la presente orden foral, son proveedores de servicios de pagos los definidos en la letra a) del artículo 166 ter del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Artículo 3. Objeto de la información del modelo 379.

Deberán ser objeto de declaración en el modelo 379, los registros que deben mantener los proveedores de servicios de pago conforme al artículo 166 quater del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido y al artículo 62 ter del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, aprobado por Real Decreto 1624/1992, de 29 de diciembre.

Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 379.

El modelo 379 tendrá una periodicidad trimestral y deberá presentarse, respecto de los pagos transfronterizos realizados en cada trimestre natural, antes de que finalice el mes siguiente al correspondiente trimestre natural.

Artículo 5. Forma de presentación, condiciones generales y procedimiento para la presentación electrónica del modelo 379.

1. Los obligados tributarios a los que se refiere el artículo 2 de la presente orden foral presentarán el modelo 379 con arreglo a las condiciones y al procedimiento establecidos en los artículos 2 y 3 de la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, para lo cual, en la sede electrónica y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas se informará del servicio de remisión electrónica del modelo 379, que estará disponible junto con el resto de los formularios o modelos normalizados, programas de ayuda o servicios, en la sede electrónica y página web citadas.

A tal efecto, deberán enviar un mensaje informático comprensivo de la declaración informativa para la comunicación de información por parte de los proveedores de servicios de pagos, ajustado al contenido que figura en el anexo de esta orden foral.

2. Akatsak edukiz gero, aitortpena ez da onartuko. Kasu horretan, erantzunaren mezu informatikoak aitortpena ez onartzeko arrazoiak azalduko ditu. Aitortpena errefusatzan den kasuetan, aurkezleak behar diren zuzenketa egin beharko ditu, baita aitortpena berriro aurkeztu ere. Aitortpena onartzen bada, erantzunaren mezu informatikoak 40 karaktereko ziurtapen kode seguru bat izango du, eta data eta ordua ere adieraziko ditu.

6. artikulua. *Fitxategi informatikoen formatua eta diseinua.*

«Mugaz gaindiko ordainketei buruzko aitortpen informatiboa» izena duen 379 ereduaitortzeko mezu informatikoak eranskinen jasotzen diren erregistroko eremuek duten edukira egokitu dira, eta haien formatua eta diseinua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean (<https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>) ageri direnak izango dira.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2024ko ekitaldiko lehen hiruhilekoari dagokion aitortpen informatiboei aplikatuko zaie lehendabiziko aldiz. Dena den, 2024ko lehen hiruhilekoari dagokion 379 ereduaitortzeko bigarren hiruhilekoko aitortpenaren epe berean aurkeztu beharko da.

ERANSKINA

«MUGAZ GAINDIKO ORDAINKETEI BURUZKO
AITORTPEN INFORMATIBOA» IZENA DUEN 379 EREDUAREN EDUKIA

1. Aitortpenaren identifikazioa.

1.1. Aitortzailearen IFZ.

1.2. Aitortzen den ekitaldia.

1.3. Aitortzen den hiruhilekoa (1, 2, 3, 4).

2. Ordainketa zerbitzuen hornitzailearen identifikazioa (OZH, aurrerantzean).

Informazio hau jasoko du:

2.1. OZHaren identifikatzailea:

Hauetako bat adieraziko da (ahal dela, BIC kodea).

– Datuak ematen dituen OZHa identifikatzen duen BIC kodea (entitatearen identifikazio kodea), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 260/2012 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 16. puntuan definitutakoaren arabera,

– Datuak ematen dituen OZHa argi eta garbi identifikatzen duen beste edozein kode. Identifikatzaileak nazionalak izan daitezke, hala nola enpresa zenbakiak, erregistro zenbaki nazionalak eta abar.

Ez da nahastu behar 3.9 apartatuko datuarekin. Eskatutako identifikatzaileak berberak badira ere, 2.1 apartatua OZH aitortzailearen identifikatzaileari buruz ari da; aldiz, 3.9 apartatua onuradunaren izenean jarduten duen OZHaren identifikatzaileari buruzkoa da, eta gerta daiteke onuraduna eta aitortzailea desberdinak izatea.

2.2. Identifikatzaile mota.

2.3. Aitortzen duen OZHaren izena edo sozietate izena.

3. Onuraduna.

3.1. Onuradunaren izena, sozietate izena edo izen komertziala.

Aitortzen duen OZHaren erregistroetan onuradunari buruz ageri diren izen guztiak adieraziko dira.

Onuraduna ez bada agertzen OZH aitortzailearen erregistroetan, agindu-emaileak sartutako izena hartuko da kontuan.

2. Si la declaración contuviera errores no se aceptará. En este caso, el mensaje informático de respuesta contendrá la expresión del motivo por el que no ha sido aceptada. En caso de rechazo, la persona o entidad obligada a presentar deberá realizar las correcciones necesarias y proceder a una nueva presentación. Cuando la declaración resulte aceptada, el mensaje informático de respuesta incorporará un código seguro de verificación de 40 caracteres, además de la fecha y hora.

Artículo 6. *Formato y diseño de los ficheros informáticos.*

Los mensajes informáticos comprensivos de la declaración del modelo 379, «Declaración informativa sobre pagos transfronterizos», se ajustarán a los campos de registro que figuran en el anexo de la presente orden foral, que estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <https://egoitza.gipuzkoa.eus>, y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <https://www.gipuzkoa.eus/ogasuna>.

Disposición final. *Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación y resultará de aplicación por primera vez a las declaraciones informativas correspondientes al primer trimestre del ejercicio 2024. No obstante, el modelo 379 correspondiente al primer trimestre de 2024 deberá presentarse, en el mismo plazo que la declaración correspondiente al segundo trimestre de 2024.

ANEXO

CONTENIDO DEL MODELO 379 DE
«DECLARACIÓN INFORMATIVA SOBRE PAGOS TRANSFRONTERIZOS»

1. Identificación de la declaración.

1.1. NIF del declarante.

1.2. Ejercicio de declaración.

1.3. Trimestre de la declaración (1, 2, 3, 4).

2. Identificación del proveedor de servicios de pago (en adelante PSP) declarante.

Incluirá la siguiente información:

2.1. Identificador del PSP:

Se informará uno de los siguientes, siendo preferible el BIC.

– El código de identificación de la entidad (BIC), tal como se define en el artículo 2, punto 16, del Reglamento (UE) número 260/2012 del Parlamento Europeo y del Consejo, del PSP que notifica los datos,

– Cualquier otro código de identificación de la entidad que identifique inequívocamente al PSP que transmite los datos. Puede tratarse de identificadores nacionales tales como números de empresa, números de registro nacionales, etc.

No debe confundirse con el elemento de datos del apartado 3.9. Aunque los identificadores solicitados son los mismos, el apartado 2.1 se refiere al identificador del PSP declarante, mientras que el apartado 3.9 se refiere al identificador del PSP que actúa en nombre del beneficiario, que puede ser diferente del declarante.

2.2. Tipo de identificador.

2.3. Nombre o razón social del PSP declarante.

3. Beneficiario.

3.1. Nombre, razón social o denominación comercial del beneficiario.

Se indicarán todos los nombres disponibles del beneficiario que figuren en los registros del PSP declarante.

Si el PSP declarante no tiene registros para el beneficiario, el nombre introducido por el ordenante se considerará el nombre que figure en los registros.

Izenak honako hauek izan daitezke: sozietate izena, txartela onartzen duenaren izena, izen komertziala, erregistroarako erabilitako izena, harremanetarako erabilitakoa, etab.

3.2. Herrialdea.

Onuraduna kokatuta dagoen herrialdearen kodea adieraziko da, 3/2023 FDAren 166 quinquies 2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.3. Helbidea.

Aitortzen duen OZHaren erregistroetan onuradunari buruz ageri diren helbide guztiak adieraziko dira.

Helbideak izan daitezke legezko helbidea, helbide komertziala, biltegiarena, etab.

Aitortzen duen OZHak bere erregistroetan gutxienez onuradunaren helbide bat duenean bakarrik beteko da.

3.4. Helbide elektronikoa/e-posta.

Aitortzen duen OZHaren erregistroetan onuradunari buruz ageri diren helbide elektronikoko guztiak adieraziko dira.

OZHak bere erregistroetan gutxienez onuradunaren helbide elektronikoko bat duenean bakarrik beteko da.

3.5. Webgunea.

Aitortzen duen OZHaren erregistroetan onuradunari dagokionez ageri diren webgune guztiak adieraziko dira.

Aitortzen duen OZHak bere erregistroetan gutxienez onuradunaren webgune bat duenean bakarrik beteko da.

3.6. Onuradunaren identifikatzailea.

Onuradunaren identifikazio fiskaleko zenbaki guztiak adieraziko dira.

Hauetako bat izan daiteke: beste estatu kide batek BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakia, Espainiako Zerga Administrazioak BEZaren ondorioetarako emandako identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ), edo, xede fiskalekin hertsiki lotuta ez egonik ere edo agintaritzak fiskal batek eman ez arren, zerga ondorioetarako erabil daitekeen edozein zenbaki nazional, titularrak ez beste inor identifikatzea ahalbidetzen duena (adibidez, gizarte segurantzako zenbakia, enpresaren erregistro zenbakia, etab.).

3.7. Onuradunaren kontua.

Funtsak transferitzen zaizkion onuradunaren ordainketa kontua zehatz identifikatzea du helburu. Beraz, datu hauek jasoko ditu:

– Onuradunaren ordainketa kontuaren IBAN kodea, 260/2012 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 15. puntuan definitzen den bezala, edo

– Kode hori eduki ezean, kontua identifikatzeko balio duen eta eragiketan parte hartzen duen onuraduna non dagoen adierazten duen beste edozein identifikatzaile. Horren barruan honako hauek sar daitezke: merkatariaren identifikatzailea (MID zenbakia), diru elektronikoko kontuak, erregistroko SWIFT zenbakiak, kontu nazionalen zenbakiak, etab.

3.7. eta 3.9 apartatuak bateraezinak dira, eta horietako bat bakarrik bete behar da.

3.8. Ordainketaren edo itzulketaren xehetasuna.

3.8.1. Itzulketa.

Agindu-emaile batek egindako ordainketak eta agindu-emaile bati egindako itzulketak bereiztea du helburu.

OZH batek ez badaki eragiketa bat itzulketa bat den, ordainketa arrunt moduan jakinarazi behar du (hura jakinarazteko beste baldintza guztiak betetzen direnez gero).

Ordainketa itzulketa bat den edo ez, OZHek adieraziko dute.

Los nombres pueden incluir la razón social, el nombre del aceptante de la tarjeta, el nombre comercial, el nombre utilizado para el registro y los contactos, etc.

3.2. País.

Se indicará el código del país de ubicación del beneficiario de acuerdo con el artículo 166 quinquies 2 del DFN 3/2023.

3.3. Dirección.

Se indicarán todas las direcciones disponibles del beneficiario que figuren en los registros del PSP declarante.

Las direcciones pueden incluir la dirección legal, la dirección comercial, la dirección del almacén.

Solo se rellenará si el PSP declarante tiene en sus registros al menos una dirección para el beneficiario.

3.4. Dirección de correo electrónico/e-mail.

Se indicarán todas las direcciones de correo electrónico del beneficiario que consten en los registros del PSP declarante.

Solo se rellenará si el PSP declarante tiene en sus registros al menos una dirección de correo electrónico para el beneficiario.

3.5. Web.

Se indicarán todas las páginas web del beneficiario que consten en los registros del PSP declarante.

Solo se rellenará si el PSP declarante tiene en sus registros al menos una página web del beneficiario.

3.6. Identificador del beneficiario.

Se indicarán todos los números de identificación fiscal disponibles del beneficiario.

Puede tratarse del número de identificación a efectos del IVA otorgado por otro EM, del número de identificación a efectos del IVA otorgado por la Administración Tributaria española, del número de identificación fiscal (NIF) o de cualquier número nacional que, aunque no esté estrictamente relacionado con fines fiscales o no haya sido emitido por una autoridad fiscal, se utilice a efectos fiscales y permita la identificación única de su titular (por ejemplo, números de seguridad social, número de registro de la empresa, etc.).

3.7. Cuenta del beneficiario.

Tiene por objeto identificar con precisión la cuenta de pago del beneficiario a la que se transfieren los fondos. Por lo tanto, incluirá:

– El IBAN de la cuenta de pago del beneficiario, tal como se define en el artículo 2, punto 15, del Reglamento (UE) número 260/2012, o

– Solo en defecto del código anterior, se informará de cualquier otro identificador que identifique inequívocamente e indique la ubicación del beneficiario que participa en la operación. Esto puede incluir el identificador del comerciante (MID), las cuentas de dinero electrónico, los números de registro SWIFT, los números de cuentas nacionales, etc.

Los apartados 3.7 y 3.9 se excluyen mutuamente y solo debe cumplimentarse uno de ellos.

3.8. Detalle del pago o devolución.

3.8.1. Devolución.

Tiene por objeto distinguir entre los pagos efectuados por un ordenante y las devoluciones efectuadas a un ordenante.

Si un PSP no tiene conocimiento de que una operación es una devolución, entonces debe notificarlo como un pago ordinario (dado que se cumplen todas las demás condiciones para la notificación).

Los PSP indicarán si el pago es una devolución.

3.8.2. Ordainketaren identifikatzailea.

Ordainketa argi eta garbi identifikatzen duen edozein erreferentzia.

Ordainketa bikoiztuak identifikatzen laguntzea du helburu. Beraz, ordainketa argi eta garbi identifikatzen duen erreferentzia oro adieraziko da.

Eragiketaren identifikatzaile bat baino gehiago dagoenean, ordainketa katean transmititzen den eta kate horretan beste OZH batzuen esku dagoen identifikatzaileari emango zaio beti lehentasuna.

3.8.3. Jatorrizko transakzioaren identifikatzailea (itzulketa kasuan).

3.8.4. Ordainketaren edo itzulketaren data eta ordua.

3.8.5. Ordainketaren edo itzulketaren zenbatekoa.

3.8.6. Ordainketaren edo itzulketaren moneta.

3.8.7. Ordaintzeko metodoa.

3.8.8. Presentzia fisikoa.

Ordainketa hastean agindu-emailea merkatariaren instalazio fisikoetan eon dela adierazten duen edozein erreferentzia adieraziko da.

3.8.9. Ordaintzailearen edo agindu-emailearen kokapena.

Ordainketaren jatorrizko estatu kidea edo itzulketaren helmugakoa adieraziko da, baita ordainketaren jatorria edo itzulketaren helmuga zehazteko erabilitako informazioa ere.

OZHak daukan edozein datu sar daiteke informazioan (IBAN kodea, helbidea, txartelaren zenbakia, etab.).

Zer datu erabili diren baino ez da adierazi behar. Datuak ez dira transmititu behar.

3.8.10. Onuradunaren OZHaren rola.

Onuradunaren izenean diharduen OZHak betetzen duen funtzio mota adieraziko da.

3.9. Onuradunaren OZHaren identifikazioa.

Datu honekin identifikatzen da zein OZHk jarduten duen onuradunaren kontura onuradun horrek funtsak jasotzen dituen ordainketa kontu bat eduki gabe (dirua bidaltzeko zerbitzua).

Hortaz, informazioa komunikatzen duen entitateak adierazi behar du zein den onuradunaren kontura jarduten duen OZHaren identifikatzailea.

Honako datu hauek eman behar dira (ahal dela, BIC kodea):

– Onuradunaren kontura diharduen OZHaren BIC kodea (entitatearen identifikazio kodea), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 260/2012 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 16. puntuan definitutakoaren arabera, edo

– Onuradunaren kontura diharduen OZHaren argi eta garbi identifikatzen duen beste edozein kode. Identifikatzaileak nazionalak izan daitezke, hala nola enpresa zenbakiak, erregistro zenbaki nazionalak eta abar.

Apartatu honetako datua ez da nahastu 2.1 apartatuan eskatutako datuekin.

Gainera, 3.7 eta 3.9 apartatuak bateraezinak dira, eta horietako bat bakarrik bete behar da.

Donostia, 2024ko apirilaren 3a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (2481)

3.8.2. Identificador del pago.

Cualquier referencia que identifique inequívocamente la operación de pago.

Tiene por objeto facilitar la identificación de pagos duplicados. Por lo tanto, se indicará toda referencia que identifique inequívocamente la operación de pago.

Quando se disponga de varios identificadores de la operación, siempre se dará prioridad al que se transmita a lo largo de la cadena de pago y esté a disposición de otros PSP en la cadena de pago.

3.8.3. Identificador de la transacción de origen (en caso de devolución).

3.8.4. Fecha y hora del pago o devolución.

3.8.5. Importe de la operación de pago o devolución.

3.8.6. Moneda de la operación de pago o devolución.

3.8.7. Método de pago.

3.8.8. Presencia física.

Se señalará cualquier referencia que indique la presencia del ordenante en las instalaciones físicas del comerciante al iniciar el pago.

3.8.9. Ubicación del pagador u ordenante.

Se indicará el Estado miembro de origen del pago o de destino de la devolución, así como la información utilizada para determinar el origen del pago o el destino de la devolución.

La información puede incluir cualquier elemento de datos de que disponga el PSP, (IBAN, dirección, número de tarjeta, etc.).

Solo debe indicarse qué datos se han utilizado, no deben transmitirse los datos en sí.

3.8.10. Rol del PSP del beneficiario.

Se indicará el tipo de función desempeñada por el PSP que actúe en nombre del beneficiario.

3.9. Identificación del PSP del beneficiario.

Tiene por objeto identificar al PSP que actúa por cuenta del beneficiario cuando este recibe fondos sin tener una cuenta de pago (servicio de envío de dinero).

Así pues, la entidad que comunica información deberá facilitar el identificador del PSP que actúe por cuenta del beneficiario.

Los datos que deben facilitarse, siendo preferible el BIC, son:

– El código de identificación de la entidad (BIC), tal como se define en el artículo 2, punto 16, del Reglamento (UE) número 260/2012 del Parlamento Europeo y del Consejo, del PSP que actúe por cuenta del beneficiario, o

– Cualquier otro código identificador de la entidad que identifique inequívocamente al PSP que actúe por cuenta del beneficiario. Puede tratarse de identificadores nacionales tales como números de empresa, números de registro nacionales, etc.

Este apartado no debe confundirse con los datos solicitados en el apartado 2.1.

Además, los apartados 3.7 y 3.9 se excluyen mutuamente y solo debe cumplimentarse uno de ellos.

San Sebastián, a 3 de abril de 2024.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (2481)